

Denboraren makina
Eta artoa lehertu
egin zen

❑ *Ezpalak*
❑ *Argitalpenak*

❑ *Denbora-pasak*
❑ *Makina bat kontu*

Thesi
Matalazen
martirioaren
urratsetan

ARGIA

erdiko kaira

kultura eta aisia

Nafarroako Bertsolari Txapelketa

JOSU SANTESTEBAN



Datorren larunbatean, martxoak 15, 17:00etan Elizondoko Lur aretoan izendatuko da aurtengo Nafarroako txapelduna. Erika Lagoma, Xabier Legarreta, Jon Barberena, Julen Zelaieta, Xabier Terreros, Julio Soto, Iñigo Olaetxea eta Migel Mari Elosegik jokatuko dute finala. Mailan, oihartzunean eta entzule kopuruan jauzia eman du aurtengo txapelketak. Horren klabeak azaltzeko bildu ditugu finalean arituko den Erika Lagoma, urte askotan erreferentzia nagusietakoa izan ondoren aurtengo parte hartu ez duen Estitxu Arozena eta Jon Abril epailea, hirurak ere bertsolaritzan urte askoan lanean ari direnak. Bertsoa.com-ekin elkarlanean egindako lehen mahai-ingurua duzu hau, bi medioetan aurkituko duzuna.

Erika Lagoma,
Estitxu Arozena eta
Jon Abril.

2008ko martxoaren 16a

ARGIA

27

Jauzi handiak lur zailean

ESTITXU EIZAGIRRE



GARI GARALDE / ARGAZKI PRESS

Txapelketa orain arte nola ikusi duzue?

Erika Lagoma. Orokorrean maila polita izan dela iruditu zait. Begirada gibelera botaz gero, uste dut denok elkarrekin ematen dugun irudia sendoagoa dela orain, duela urte batzuk baino.

Estitxu Arozena. Azken txapelketen ezaugarria izan da finaleko partehartzea sobera Bortzirikoa eta batez ere sobera Lesakakoa izan dela. Aurten hori aldatu da, eta finalak hobeto islatuko du bertsolaritzak Nafarroan duen hedadura.

Jon Abril. Erikak aipatu duen haritik, bertsolarien maila orekatuago dago, eta azken urteetan hori txapelketa osoan sumatzen ari naiz: lehen txapelketa kasik finala bakarrik zen, eta kanporaketak finalerako trantsizioa. Orain txapelketaren formatu eta irudia hasieratik bukatu artekoa da.

E. Lagoma. Entzule kopuruan, iazko urtetik saltoa eman da. Kanporaketetan ehundik gora pertsona bildu ziren eta hori Nafarroako txapelketan, nik akordua dudanetik ez dut ezagu-

**Aurtengo
Nafarroako
Bertsolari
Txapelketako
Berako finalerdia.**

tu. Eta finalaurrekoetan ere jende dezente bildu da.

E. Arozena. Nabari da komunikazio plan bat egin dela, eta hori egonkortu heinean prestigioa ematen du.

Aurreko txapeldunek ez parte hartzeak zertan izan du eragina?

J. Abril. Uste dut azken urteetan jendeak ikusi duela txapelduna edonor dela ere badagoela maila eta saio politak aditzeko aukera. Gainera, parte hartu duten bertsolari batzuentzako txapela lortzeko aukera handiagoa ekarri du, azken urteetan indartsuen aritutako Xabier Silveira eta Estitxu Arozena ez egoteak. Beste batzuentzat, txapela lortzeko ez, baina finalera sartzeko aukera izan da.

E. Arozena. Bai, txapelketaren bukaeran bi txapeldun izanen dira, aurreko txapeldunak ez baitu plazan galdu txapela. Hori Nafarroako bertsolaritzarentzat garrantzitsua da, orain arte nahiko izen gutxirekin identifikatzen zelako.

Joxema Leitz: "D ereduko ikasleen %90ak jasotzen du bertsolaritza"

Nafarroako Bertsozale Elkarteko idazkariak aurtengo txapelketaren helburu nagusia "hurrengo urteetarako txapelketa beste fase batean jartzea, beste dimentsio bat ematea" izan dela esan digu, eta bere herrialdeko egoera aztertu digu, datuak oinarri.



Zein da nafar bertsolarien mapa?

Badira eskualde batzuk, zorionez, bertso eskolara joan gabe ere bertsolaria sortzen dituztenak. Larraun-Leitza inguruan, Araitzen, Baztanen eta Bortzirietan oraindik "berez" ikasteko giroa badago. Bertsolarien mapa hortxe dago: Bortzirietakoak dira bertsolari gehienak, baina beste eskualdeetatik bana-banaka ateratzen dira. Iruñerrian eta Sakanan berriz, gerraz geroztik bertso tradizioa moztu egin zen eta orain ari da berreskuratzen.

Zenbat bertso ikasle dabilta hezkuntza arautuan, zenbat bertso eskoletan?

1995ean hasi zen oraingo transmisio egitasmoa: 30 orduko ikastaroa hezkuntza arautuan, Iruñerrian. Urtez urte eskola berriak gehitu zaizkie: Goizueta eta Leitza sartu ziren 1999an, hurrengo urtean Baztan, hurrengoan Sakana aldea, eta ondoren etorri zen Larraun ingurua; eta joan zen urtean Agoitz, Lizarra eta Gares. Nik uste egonkortua dagoela, mapa hori ez dagoela gehiago hedatzerik. D ere-

duko ikasleen %90ak jasotzen du ikastaro hau, 920 ikasle izango dira gutxi gora behera, 40 ikastetxe inguru.

Egun 25 bertso eskola daude, horietako gehienak Iruñerrian. Eta beste asko Malerreka eta Bortzirietan. Beste kontu bat da, bertso eskolan izena eman eta bospasei urtean zenbatek jarraitzen duten, eta hor segur aski kopuru handiagoa egongo da eremu euskaldunetan Iruñerrian baino.

Zertan da Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Bertsozale Elkartaren arteko harremana?

Euskararen munduko elkarte bakarra izango gara dirulaguntzarik murriztu ez dugutena. Hezkuntza sailarekin 6 urterako hitzarmena dugu eta proiektuaren erdia Gobernuak finantzatzen du. Kultura Sailarekin ere 1984tik hitzarmena sinatu izan da eta euskarazko talde bakarra izan gara urtetan. Iazko urte bukaeran Bertsozale Elkartea aurkezteko bilera egin genuen Iruñeko Udaleko eta Nafarroako Parlamentuko alderdi guztiekin, eta Nafarroako aurrekontuetan Bertsozale Elkarteari laguntza izendun bat eskaintzea onartu da. Beraz, ez dugu laguntzen deialdian sartu beharrik izango.

www.argia.com eta www.bertsoa.com helbideetan, elkarrizketa osoa eta bideoa.

Ez parte hartzeak zabaldu die protagonismoa partehartzaile berriei eta batez ere, garai batean aritu eta berriz itzuli direnei: bai Xabier Legarreta eta bai Xabier Terreros finalean egonena dira. Ibilbide bat egin zuten, atsedean hartu eta orain bueltatu dira.

E. Lagoma. Nik parte hartzaile bezala ez dut sumatu hori oholtzan, gaudenak gaude eta ez diot horri erreparatu. Finalean bai, dudarik gabe, Silveira izan da azken lau urteotako txapelduna eta aurtengo presioa bertzeontzako da. Lau urtez txapeldun izan dena oholtzan bada, bere bizkarrera botatzen du presio guztia; zu berriz, zure saioa egitera zoaz, eta ongi ateratzen bazaizu primeran, baina lasaitasun horrekin. Aurtengo presio hori banatua dago.

Beste herrialdeetan ere orain gertatu da belaualdi batek txapelketa uztea: Bizkaian Unai Iturrigak eta Igor Elortzak ez zuten parte hartu eta Gipuzkoan Maialen Lujanbio ere ez. Kasualitatea al da?

E. Arozena. Denetik da pixka bat. Biografiakoa ere bada erabakia: nekea pilatzen da, 15 final egin eta erraten duzu "nik eskaini behar nuen eskainia dut". Bertzetik, izan ziren urteak jendea ateratzen zena atera behar zela-

ko, jenderik ez zelako. Orain ez dago presio hori, badago kopurua eta maila. Beraz, uzteko lasaitasuna dago. Ikusten duzu ziklo bat bukatua dela, eta bertzetik badagoela etorkizuna. Bi gauza horiek bat egin dute. Iruditzen zait antzekotasunak badituela beste herrialdeetan gertatu denarekin, belaualdi baten joera dela: hagitz gazte hasi ginen txapelketetan, eta oraindik gazte gara, baina pixka bat nekatuta gaude. Baina beste alde batetik, Iturriaga, Elortza edo Lujanbio ez ateratzeak ez du zerikusirik, haiek Euskal Herriko Txapelketarako txartela lortua dutelako, aurreko final batean egoteagatik, eta gure kasua ez da berdina.

Hitz egin da Nafarroako Txapelketaren izaeraz: festa da ala lehia?

E. Arozena. Berrian agertu zen elkarrizketa bat, eta Silveirak eta biok azpimarratu genuen Nafarroako finalaren ezaugarri nagusia besta izaera zela. Uste dut elkarrizketa horren interpretazio batzuk okerrak izan zirela, eta argitu nahi dut guk horrela bizi dugula, besta modura. Beste formalismo batzuk gustuko izan edo ez, ez zen gure helburua bertzeena kritikatzeko. Nik uste Nafarroan horrela bizi

dela, euskaraz egiten den besta indartsuenetakoa dela, eta lehia badago, dudarik gabe, joaten den guztiak irabazi nahi du, baina oro har publikoan dagoen sentsazioa egun polita pasatzera joatearena da. Eta horrela izatea nahi nuke etorkizunean ere.

J. Abril. Nik ere uste dut beste txapelketekin alderatuta baduela besta kutsu handiagoa, gurea oraindik mundu ttikia delako. Elkar ezagutzen dugu parte-hartzaile, gai-jartzaile, eta epaileek. Ikusleen artean ere, Nafarroako Txapelketan badago kopuru bat nahiko fidela dena, euskara dagoen egoeran egonda, hilabete batez euskal giroan mugitzeko aukera gisa ikusten duena. Horrek denak giro berezia sortzen du. Epaile naiz, eta beharbada beste txapelketa batean zailagoa da, bertsolariak hainbeste ezagutzen ez dituzunean, saio ostean haiekin elkartu eta nola aritu diren lasai ederrean komentatzea.

E. Lagoma. Lehia lehia da, dudarik gabe, eta saioaren aurreko egunean sentitzen duzun korapilo horrek argi uzten dizu besta izateaz gain lehia dela. Baina Nafarroan euskaldunon egoera zein den ikusita, besta handi bat da, erabat euskaraz egiten dena. Epaileek, gai-jartzaileek eta bertsolariok badakigu gure papera zein den, baina elkar elikatzen dugu eta badakigu helburu bera dugula, nahiz eta txapelketa lan pertsonala ere baden.

Txapelketak badu eragina Nafarroako plazetan?

E. Arozena. Nafarroako plazetan baino gehiago eragiten du Euskal Herriko plazetan nire ustez, Nafarroako ordezkari bezala ari zeko. Badira Nafarroan aski adibide, txapelketan gauza handirik egin gabe ere, bertze ezaugarri batzuk dituztelako –mugitzen direlako, edo beti baietz erraten dutelako...– zirkuitu bat egin dutenak. Dudarik gabe txapelketak laguntzen du, eta komunikabideetan ateratzeak ere bai; antolatzaileek ere txapelketari erreparatzen diote, baina gure herrialdea hagitz handia da, mugimendu pila bat dago eta kantatzeko aukera asko.

J. Abril. Herri ttiki hagitz dago Nafarroan eta antolatzen diren saio anitz afari girokoak dira, edo inauteri eta bestekin lotuak. Badira bi joera: bata, Euskal Herriko puntako bertsolariak ekartzekoa –eta hauetako askotan urtero bertsolari berak–; eta bestea, bertakoak ekartzea.

“Txapelketaren bukaera bi txapeldun izanen dira: aurrekoa, eta aurtengoa. Hori garrantzitsua da, orain arte izen mugatuekin identifikatzen zelako Nafarroako bertsolaritza”

ESTITXU AROZENA

“Badago entzule kopuru bat, euskara dagoen egoeran egonda, Txapelketa hilabetez euskal giroan mugitzeko aukeratzat duena”

JON ABRIL

“Kontzertu bat antolatu eta ez dituzu biltzen Bertsoaroak azken saioan bildu zituen 400 pertsona, ostegun batez”

ERIKA LAGOMA

E. Arozena. Batzuetan pasatzen da bitartekorik ez dagoenean nafarrei deitzen zaiela. Dena den, badira herriak bertako bertsolariak ere sartzen dituztenak, adibidez lautik bat nafarra, edo seitik bi... Nik uste dut bi bertsolariko saioa antolatu behar denean, eskubide osoa dagoela bi onenak ekartzeko. Orain, sei ekarri eta seirak kanpoak... Hori jada delikatuagoa da.

E. Lagoma. Nire kasu pertsonaletik, uste dut txapelketak baduela isla baina ez txapelketan egiten duzun postuaren arabera. Entzuleekin nola konektatu duzun da kontua. Lehengo urtean laugarren egin nuen, eta aurtan, oraindik finalean kantatu gabe, hamar aldiz saio gehiago egin ditut. Nafarroako “feudo” horiez solasean, Basaburuan beti ekarri dituzte puntako bi bertsolari, eta aurtan bi nafarrek kantatu dugu, Etxalarren Bortzirietako bi bertsolarik kantatu dugu aurtan Lizasorekin batera... Poliki-poliki ari da aldatzen, eta gero noski, maila eman behar da, antolatzaileen espektatibak betetzen ez badituzu berriro itzuliko da lehengora.

Zein da bertsolariaren figura Nafarroako gizartean?

J. Abril. Gipuzkoan eta Bizkaian erraten bada erdal munduak ez diola begiratzen euskaldunari, Nafarroan gertatzen dena da kasik ez dakitela existitzen dugunik. Nafarroako gizartearen kopuru handi batek ez du jakinen ere bertsolari bat zer den. Baina, euskal gizartearen barruan kultur arloko erreferente nagusietakoa izanen da, idazleekin batera. Hala ere, Nafarroan gizarte bakar batez hitz egitea hain da zaila...

E. Arozena. Zonalde euskaldunetan jarraipen hagitz estua eta egunerokoa egiten zaio bertsolaritzari, batez ere bertako komunikabideekin. Iruñerrian ere bertako komunikabideak saiatzen dira jarraipena egiten, eta bertsolariak ere gonbidatzen dituzte tertulietara.

E. Lagoma. Bai, euskaraz antolatzen diren gauzak kontuan hartzen baditugu, Bertsoaroa da dudarik gabe jende gehien mugitzen duen ekimena. Iruñeko Udalako euskara teknikaria bera ere harritua dago horrekin: kontzertu bat antolatu eta ez dituzu biltzen Bertsoaroak azken saioan bildu zituen 400 pertsonak, ostegun batez. ■

<http://www.argia.com> eta www.bertsoa.com helbideetan, mahai-inguru osoa eta bideoa.